

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Euskara ikasteko 2025eko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri arautzaileak eta deialdia

Udal osoko bilkurak 2025eko maiatzaren 15ean egindako saioan honako hau erabaki zuen, beste batzuen artean:

- Euskara ikasteko arloan dirulaguntzak emateko deialdia eta dirulaguntza horien oinarri arautzaileak onartzea.
- Erabaki honen bidez araututako diru-laguntzak 2025eko gastuen aurrekontuko 335.480.000 partidaren kargura ordaintzea.
- Deialdi horiek ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegi egokian (txandaren arabera), eta horretarako bi hileko epealdia egongo da erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio argitaratutako berariazko ebazpena eman duen organoari, eta horretarako hilabeteko epealdia egongo da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgian, 2025eko maiatzaren 29an

Alkate-udalburua
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

EUSKARA IKASTEKO 2025EKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Xedea

Zuiako Udalak bertan erroldatutako jendeari 2025ean eman beharreko diru-laguntzak arautzea du helburu deialdi honek; diru-laguntza horiek jarraian adierazten den edozein ikasketak egiteko dira.

- Euskaltegietan edo HABEk homologatutako zentroetan egindako ikastaroak (2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era arte).
- Ikastaroak barnetegi homologatuetan, 2025ean.

2. Onuradunak

Deialdi honetako diru-laguntzak ondoko baldintzak betetzen dituzten 16 urtetik gorako pertsonentzat dira: Zuiako udalerrian erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik, gutxienez, eta beretan erroldatuta egotea ikastaroa amaitu arte.

3. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Ikastaroko matrikula ordaindu delako frogagiria (jatorrizkoa).

Euskaltegiaren edo barnetegiaren ziurtagiria, egindako maila edo mailak, horiek gainditu diren ala ez, aprobetxamendua eta bertaratzea adierazten dituen, ikastetxeak emandako ordu kopurua eta ikasleak parte hartu duen ordu kopurua zehaztuta.

4. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek hauexek egin beharko dituzte:

- Diru-laguntza eskatzen duen ikastaroan gutxienez orduen ehuneko 80an izan direla frogatu, ezinezkoa denean izan ezik (arrazoiak azalduta).

— Egindako maila edo mailak gainditzea, edo, hala badagokio, egindako ikastaroa edo ikastaroak ondo aprobetxatu direla egiaztatzea. Maila gainditu dela egiaztatzen ez bada euskaltegiaren txosten xehatua aurkeztuko da.

- Helburu bererako jasotzen diren laguntza eta diru-laguntza guztien berri eman Udalari.

— Udalari helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortu izana jakinaraztea, beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazio baten bitartez. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emailea adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

- Zuiako Udalarekiko zerga betebeharrak egunean eduki.

5. Eskaerak aurkezteko epealdia

Ikastaroa amaitzen denetik hilabeteko epealdia egongo da eskaerak aurkezteko, udalak emandako ereduaren arabera.

Eskaerak eta dokumentazioa Zuiako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, behar beste bitarteko ez badago, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bitartekoren bidez.

6. Balorazio irizpideak

Diru-laguntzak borondatezkoak dira; Udalak ez dauka zertan diru-laguntzarik eman.

7. Eskaerak ebazteko eskumena daukan organoa

Alkatetzak emango du ebazpena informazio batzordeak bidezko txostena egin ondoren.

8. Aurrekontuko kreditua eta diru-laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2025eko ekitaldiko aurrekontuko 335.480.000 partidaren kredituari, 10.000,00 euroko zenbatekoarekin egotziko zaizkio.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ikastaroaren matrikularen zenbatekoaren ehuneko 100 izango da; barneratuen kasuan, mantenu- eta egonaldi-gastuak dirulaguntzatik kanpo geratuko dira.

Ikasleren batek egiaztatzen badu ezin duela matrikularen kostua ordaindu eskolak hasi baino lehen, euskaltegiak eta udalak finantzatzeko aukera aztertuko dute.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezin da izan ikastaroaren kostua baino gehiago.

9. Justifikatzea eta ordaintzea

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da diru-laguntza.

10. Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

Oinarri hauetan jasoten ez den orotarako Zuiako Udalaren laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

Euskara ikasteko subentzioa - Diru laguntza eskabidea
Estudio del euskara- Solicitud de subvención

Izen-deiturak / Nombre y apellidos		NAN-AIZ / DNI-NIE	
Helbidea / Domicilio		Herria / Población	PK / CP
E-mail	Telefonoa	Zuian erroldatua / Empadronamiento en Zuia ☐ Bai/ Sí ☐ Ez/ No	
Banketxea / Banco	Kontu korrontearen zenbakia / Número de cuenta corriente		
Eskatu edo jaso al duzu xede berberarako bestelako laguntzarik? (jaso badira, zenbatekoa azaldu): ¿Has solicitado o recibido otras ayudas para el mismo fin? (si se han recibido, especificar importe): ☐ Bai, zehaztu zenbatekoa / Si, especificar importe ☐ Ez dut jaso edo eskatu/No he recibido ni solicitado ninguna			
Administrazio edo enpresa / Administración o empresa		Zenbatekoa / Importe	
Baimena ematen diot espresuki Zuiako Udalari sektore publikoko edozein entitatetatik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan izenburuan agertzen den diru laguntza eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla. ☐ Bai ☐ Ez*		Autorizo expresamente al Ayuntamiento de Zuia para recabar directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las condiciones requeridas para la solicitud de subvención indicada en el título de este impreso. ☐ Sí ☐ No*	
*Ezekoan, aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.		*En caso negativo se deberá aportar tal documentación.	
Diru-laguntzei buruzko azaroaren 2003 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. Artikuluko baldintzak betetzen ditudala adierazten dut. ☐		Declaro que cumplo los requisitos del art.13 de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre de 2003 ☐	
Nire erantzukizunpean adierazten dut goian azaldutako datuak egiazkoa direla. ☐		Declaro bajo mi responsabilidad que los datos indicados arriba son ciertos ☐	

Aurkezten den dokumentazioa - Matrikularen ordainagiriaren jatorrizkoa: ☐ - Euskaltegiak emaniko ziurtagiria: • Gutxieneko bertaratzea (% 80) ☐ • Maila gainditu edo aprobetxamendua ☐	Documentación que se presenta - Justificante original de pago de matrícula ☐ - Certificado del euskaltegi: • Asistencia mínima del 80% ☐ • Superación de nivel o aprovechamiento ☐
--	--

Sinadura / Firma:

Data/Fecha:

Udal plaza, 1
Murgia - ZUIA
01130 ARABA

945 430 005
<http://www.zuia.eus/>
azuia.general@ayto.araba.eus

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

Datu babesari buruzko informazioa

Información adicional protección de datos

Tratamenduaren arduraduna

Responsable del tratamiento

Identitatea: Zuiako Udala – IFZ P0107200H**Helbidea:** Udal plaza, 1 – 01130 Murgia (Araba)**Telefonoa:** 945 430 005**E-mail:** zuiakoudala@ayto.araba.eus**Datuen Babesaren Ordezkarria:**
azuia.dbo@ayto.araba.eus**Identidad:** Ayuntamiento de Zui – NIF P0107200H**Dirección:** Plaza del ayuntamiento, 1 – 01130 Murgia (Álava)**Teléfono:** 945 430 005**E-mail:** zuiakoudala@ayto.araba.eus**Delegado/a Protección de Datos:**
azuia.dbo@ayto.araba.eus

Tratamenduaren xedea

Finalidad del tratamiento

Helburua: Eskatutako diru-laguntzei dagokien informazio pertsonalaren kudeaketa.**Gordetzeko epeak:** Subentzioen espedienteak

Diru-laguntzaren deialdiko espedientearen kontserbazio iraunkorra

Urte 1 ukatutako banakako espedientetarako eta 8 urte diru-laguntza onartutako espedientetarako.

Finalidad: Gestión de la información personal relativa a la concesión de subvenciones solicitadas.**Plazos de conservación:** Expedientes de subvenciones

Conservación permanente del expediente de convocatoria de lasubvención.

1 año para expedientes individuales denegados y 8 años para expedientes concedidos.

Legitimazioa

Legitimación

Botere publikoaren egikaritza DBEOren 6.1.e) artikulua

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorra

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean Erregelamendua onartzen duena

Ejercicio de la potestad pública: art. 6.1.e) RGPD

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones

Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones

Hartzaileak

Personas destinatarias

Legeak ezarritakoak eta tratamendu honen esparruan aplikagarri direnak.

Las establecidas legalmente y que sean de aplicación en el ámbito de este tratamiento.

Eskubideak

Derechos

Interesdunek honako eskubide hauek dituzte:

- Zuiako Udala interesdunen datu pertsonalak tratatzenari den ala ez dioen baieztapena jasotzeko eskubidea.
- Haien datu pertsonaletara sarbide izateko, okerrak diren datuen zuzenketa eskatzeko, edo, kasuan kasu, ezabatzeko eskubidea, datuak jaso ziren beharrianetarako jada beharrezkoak ez direnean.

Egoera jakin batzuetan honako hauek eskatzeko:

- Datuen tratamendua mugatzea. Kasu horretan, Zuiako Udalak erreklamazioen aurrean defendatzeko edo haiek egikartzeko gordetako dituztutik.
- Datuen tratamenduaren aurka egitea. Kasu horretan, Zuiako Udalak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta arrazoi legítimo larriak baldin badaude edo erreklamazio posibleen defentsa edo egikaritza badago. Banakako erabaki automatizatuarentzako datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere erabil dezake.

Eskubide horiek Zuiako Udalen aurrean egikaritu ahal izango dira. Helbidea: Udal plaza, 1- 01130 Murgia (Araba).

Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa jarri ahal izango da. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaen kalea, 71 - 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz.

Las personas afectadas tienen derecho a:

- Obtener confirmación sobre si el Ayuntamiento de Zui está tratando sus datos personales.
- Acceder a sus datos personales, así como a solicitar la rectificación de los datos inexactos o, en su caso, solicitar la supresión cuando, entre otros motivos, los datos ya no sean necesarios para las finalidades para las cuales fueron recabados.

Solicitar en determinadas circunstancias:

- La limitación del tratamiento de sus datos, en cuyo caso sólo serán conservados para el ejercicio o la defensa de reclamaciones.
- La oposición al tratamiento de sus datos, en cuyo caso, el Ayuntamiento de Zui dejará de tratar los datos, salvo por motivos legítimos imperiosos, o el ejercicio o la defensa de posibles reclamaciones. Incluido el tratamiento de sus datos para decisiones individuales automatizadas.

Los derechos podrán ejercerse ante el Ayuntamiento de Zui – C/ Plaza del ayuntamiento, 1 – 01130 Murgia (Álava)

Si en el ejercicio de sus derechos no ha sido debidamente atendida o atendido, podrá presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Dirección: C/ Beato Tomás de Zumárraga, 71 – 3ª planta - 01008 Vitoria-Gasteiz.

Udal plaza, 1
Murgia - ZUIA
01130 ARABA945 430 005
<http://www.zuia.eus/>
azuia.general@ayto.araba.eus